

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Antigua Urbieta Etxaburu

*Ondarroa,
Bizkaia (1938)*

Aurkibidea



Biografia



Gerraostearen ondorioz, Donostiako Altza auzoan jaio zen, bere aita Pasaiaiko arrantza-ontzi baten ibili baitzen lanean. Baina bost bat urte zituela bueltatu ziren gurasoak beraien jaioterrira eta ordudanik bertan, Ondarroan, bizi izan da Antigua. Zaldupe auzoan hazi zen eta handik joaten zen eskola nazionaletara, baina eskola gustuko izan arren ezin izan zuen nahi beste joan, gazterik hasi baitzen lanean: kontserba-lantegian zein umezain. Gerraosteko Kresala dantza-taldean parte hartu zuen umea zela. Ondarroako iragana eta oraina oso ondo ezagutzen dituen emakumea da, eta antzinako hainbat kontu kontatu zizkigun. Jose Uribe patroia ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten, horietako gazteena Kirmen Uribe idazle ezaguna.

Zintak

OND-047

- **Proiektua:** Ondarroako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2014-10-30
- **Iraupena:** 64 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

OND-048

- **Proiektua:** Ondarroako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2014-10-30
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

OND-049

- **Proiektua:** Ondarroako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2014-10-30
- **Iraupena:** 36 min

- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Bost urterekin Donostiatik Ondarroara; Zaldupe auzoa

- **Erref:** OND-047/002
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:00:38. **Bukatu:** 00:02:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Donostian jaioa da, 1938an, gerraostean aita bertan hasi zelako lanean, arrastean. Bost urte inguru zituenean itzuli ziren Ondarroara, eta Zaldupe auzoan bizi izan ziren. Auzoa nolakoa zen. Erreka ondoan bost-sei kontserba lantegi zeuden eta, mekanikako lantegi bat ere bazen.</p>

Transkripzioa

- Donostin.
- A bai?
- Bai. Hamen e... gerra ostin jun zin /juntzin/ hara Pasaire arrastea, arrasta hasi zan han, garai hartan, ta han auzuna bat, Buenavista edo, ta zelan e, Donostiri tokaten gakon auzuni zan, ba, hor nau neu e... donostiarra.
- A... orduen gerrie dala ta...
- Gerrien atzetik, klaro, ni zelan hogeta hamazortziku.... hogeta hamazortzi, hogeta hemeretzi lasterrin etorri zan atxe, ta ordun e... haraxe, hantxe hasi zan arrastako mobida barrixe. Ta haraxe jun zin bixitzea. Ta neu hantxe jaxo [ha(ra) hor].
- Ta noz bueltau ziñen ba?
- Bueltan ein bost bat urte ero, ni ez nai ixebe akordetan, ixebez. Amak esaten dau, bost bat urte-ero eukiko nebanela.
- Ta Ondarrure, nora edo?
- Zaldube. Oin bada ba e... hori e... bide barrixa? han euan Zaldupe, oso auzuna politte. Bueno, gutzako. Hantxe, Zaldupen e...
- Zaldupe han f... e...
- On e, bada ba... zu e... etorri zazena e, hoixe... zubi bat e... bariante barri dana? Haxe zan. Han euazen behian e... errixue joten etxe batzuk, eta gero bidi ta goixan beste batzuk. Hor zan, ba, "Zerki" deitzen gentsan ta hantxe. Handixek iñora be ez.
- Zer zien, etxiek, baserrixek... edo...
- Ez, etxik, etxik, baiñe etxe horrek piso bikuk. Piso bi, hiru... altuena be, e... holantxen, ta fabrikak euazen bertan edozenbat.
- Zer, kontserberak?
- Kontserba, antxoa-fabrika ba... sei bat-edo bai, han behi guzti... egongo zan bat, bi, hiru... bai, bost-sei bat fabrika egongo zin.
- Han erreka-eskiñan?
- Bai. Ta ontxe esaten dot "nun da hareik gauza guztik?" bebai euan arotzeixi, eta, e... tallar bat, tallar mekaniku... horretxek fabrika guztiok eta hainbeste etxe ta hainbeste jente... hantxe bizi kamiñun, hantxe gaz, geuazen... Gauzie, e...
- Joe.
- Klaro, urai hartute, ba, mendixei kendute... ba, zabaldu. Haintxe, zerkan, Zaldupe, ixena [...] ixena politte.

2. Hondartza udatiarrentzat; eurak erre kara

- **Erref:** OND-047/005
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:05:40. **Bukatu:** 00:08:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, erreka eta uretako jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Amak esaten zien hondartza udatiarrentzat zela, ondo jaten zutenentzat, itsasoko urak makaldu egiten zuela eta. Eta orduan errekarra joaten ziren bainatzera. Kaleko askok ez zekiten igerian eta askotan beste umeak uretatik ateratzen ibiltzen ziren, batzuetan benetan, eta bestetan jolasean. Nagusiago egin zirenean "kaseta"k jarri zituzten hondartzan. Pezeta bat ordaindu eta, denentzat bainujantzirik ez zutenez, "kaseta" barruan kantuan ibiltzen ziren.

Transkripzioa

- Eta ze akordu dekozu, umetako Ondarruna eta zuen umetako...
- Umetaz gu, ze esango dotsut /esangotzut/ pe? Hondartzi, hori hondartza ederroi, esaten neban ba, batetik e, ondo jan, ondo bixi, aberatsa ixan, ta hondartzi be eurentzako, nik ez neban entediuten. Gure amak esaten euskun /esateskun/ beraneantintzat dala hondartzi, ondo jaten dabenantzako. Urak zelan eitten daben makaldu, igarixak eta holan, gu ez giñala jun bir. Ta ordun, ba, nahi ez. Ta hor zelan errixu geunkan, hor, hondarra, hondarra deitzen gentsan, "hondarrea", errixu hantxe. Ez geukan baiñuko erropaik be, baiñe beti... gure amai gustaten jakon ba... obra onak-eta eitti ta holan, eta "tzank"!, erropa ta guzti... Bajaten zin, egixa esan, goiko kaletik eta Kalanditxik herrire bajaten zinin umik, gitxirek ekixen igaixan, ordun jauste zin ta beti gebizen umik salbaten. Behin o behin benetan, ta mille bider ba olgetan. "Umi salba dou" ta halaku, ta nahi beste igari ein erropa ta guzti, ta ala, etxea hundiute gero. "Umi ta ondo da?" "Bai e... estu ta ibili da /ibilire/, estu-estu, baiñe, tire, jun de" ta, listo. Beti asmaten. Ta gero kasetak-eta ipini eben, ta nausitxuauak ein giñanin, hamar... hamar urte ta... gero gure aitzak zaharrauak.... ta, bueno, kaseti rubixi ixaten zan, peseta rubixa bat, eta hantxe erantzi ta... Ez geunkan baiñuko erroparik be, ya esta bien, e? baiñuko erropaik be ez. Baiñe beti egoten zan hantxe alkilerreku, edo hangu, edo harek ez dakit /eztai/ zeñena, edo aitzine, edo [laga ber tzala], lehenengo bat baiña haretxeaz, gero besti... Ta peseta bateaz hamendikaldeko atetik sartu, handikaldeko ati erai, kasetik ate bi eukitten eban ta, ta handik sartu kuadrilla guzti. Sartu kasetin barrun, ta danok ez geunkanetik baiñuko erropaik pe, kanta ta kanta, hantxe. Ta akordaten na nire gixona gero ixan zana, gauzie, e? eitten eben e... kaseta azpire sartu ta [halaik] egurrak [errexak], ta handixek espiaten. "Eee, nun daz?" ta... ze karajo eitten gendun han? ba, kanta ta kanta, ta txistik konta ta, "nun egongo?" ta... Osea gutzako plaixe... ta igai hondartzan gitxi, oso gitxi: errixun. Nik esate neban. "Ondiokan e, ondo jan, ondo bixi, eskola jun...", porke niri eskolaa juti-ta asko gustate jat... Lagun bat geukan hor, tarteko aberats bat, edarto bixi, ta plaixe eurentzako. Zela leike ba?

3. Ondo jaten zuten, baina okelarik ez

- **Erref:** OND-047/006
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:08:06. **Bukatu:** 00:08:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Ondo jaten zuten: baserriko barazkiak; arraina beti izaten zuten, bata edo besteak emanda; arbolatik lapurtutako fruta. Okelarik ez; aita itsasotik etortzen zenean haretxentzat xerra zati bat, besterik ez.

Transkripzioa

- Baiña-patata hutsak eta jan, ta arraiñe, ta... Ta oin, ondo pentsata, generalin, ba, baserritako berduri, ta gero txalopan arraiñe, beti jaube eitten ziñan: goikuk, albokuk... alkarrei arraiñe emonda. Sagar sanfrantziskuk osten gendun han arbolan, han kolkun sartute erun, atzenin alimentu konpletu! Geuk eitten gendun, bestik ez dakiau zer. Okeli-ta ezta ikusi be ez. Haragixe, aitxe etorten zanin tajadatxu bat, zerra bat, aitxantzako, itxosotik etorrenin, ta guk berak ekarten eban arraiñe. Ta hantxe danok usaiñe hartzen okeliai. Baiñe zu, hamen gogor-gogorrak.

4. Behin lortutako bainujantziarekin gertatutakoa

- **Erref:** OND-047/007
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:08:48. **Bukatu:** 00:10:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Ez zuten bainujantzirik izaten. Barruko arroparekin bainatzen ziren, eta gero ahal zen moduan sikatu. Kanta bat abesten zuten: sikatzen bazen, zerura, eta bestela infernura. Behin bainujantzi bat lortu zuen nonbaitetik. Etxera bidean arrastaka eraman zuen, sikatzeko asmoz, eta apurtu egin zitzaion. Mutilen bainujantzia lortzea errazagoa zen.

5. Errekan jendearen aurrean bainatzea debekatuta

- **Erref:** OND-047/008
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:10:36. **Bukatu:** 00:11:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:

Ez zieten uzten igeri egiten, makaldu egiten zuela eta. Baina errekan "dzangadaka" ibiltzen ziren fabrika gainetatik. Erreka lehenbiziko aldiz gurutzatzea lorpen handia izaten zen. Batzuetan ontziolaraino joaten ziren igerian, baina udaltzainak atzetik segitzen zien, jendearen aurrean horrela ibiltzea ez zelako itxura.

6. Hondartzan neskak eta mutilak aparte bainatu behar

- **Erref:** OND-047/009
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:11:58. **Bukatu:** 00:13:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Hondartzan txikota (soka lodi bat) egoten zen uretan, neskak eta mutilak elkarrekin ez bainatzeko. Eta zaintzen egoten ziren, gainera. Neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren kuadrillan; haiek ere ez ziren hondartzara joaten.

Transkripzioa

Euan soka bat, andrazkuk eta gixonezkuk, ta holan trabeseta, ta gero soka bat. Esaten neban, ba, ha soki, ha soki guk segundo baten pasaten bagendun! Harutzatxua jun [buzadi] ein ta yasta! Hondartzan be zaintzen eoten zin, neskak mutillakin batea ez eoteko ta. Ta soki han. On eoten dine boluk, noarte igaire jun biher zazen /bizazen/ ta harutz gehixa ez, ba, ordun on holan dazenak boluk holanik.

Hondarrian.

Hortik haruzkun. Hondarrin ez, uretan.

Uretan?

Uretan, igaixan ez eben lagaten hondartzan be ibiltren neska-mutillak gaztik-eta batea ordun. Uretan, ba, ze ein eben /einben/? Soki ipini, txikota, lodi-lodixe, ta hamendikaldin mutillak eta hor neskak. Ta guk pasaten gendun buru ta gero osta be hamendikaldea etorri ta...

Hori txikota hondarrian be bai edo?

Ez, hondarrin ez. Hondarrin mari beherutz eitten zanin eoten zan, baiñe mari gorutz etorrenin, ba, ez euan gorarte. Ez naz seguru akordaten gorarte edo ure euan lekun euan.

Ta kuadrillan ez ziñien ibiltten ala?

Bai!

Mutillek eta neskak?

Bai, bai, kuadrillan. Ta... baiñe eurak be ez zin juten hondartza ta eurak be geure moure.

7. Neska-mutilek kuadrillan egiten zituztenak

- **Erref:** OND-047/010
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:13:10. **Bukatu:** 00:14:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren kuadrillan. Lehen zakar-bilketarik ez zen egiten eta erre kara botatzen ziren zikin guztiak. Pintura pote zaharrak hartu, karramarroak jarri bertan uretan, berotu eta jan egiten zituzten. Askok kantatzen zuten lagunartean.

8. "Hiru aeroplano" kanta herrikoa

- **Erref:** OND-047/011
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:14:33. **Bukatu:** 00:16:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>Ez zekiten euskarazko kanta askorik. Amak kanta herrikoi asko zekizkien eta horietak bakarrik abesten zituzten euskaraz, eskolan erdarazkoak ikasten zituzten eta. "Hiru aeroplano" kanta herrikoiaren lehen zatia abesten du.</p>

Transkripzioa

- Zer kantaten zan ba?
- Euskarazko kanta asko ez genkixen, gauzi de, erderaz eskolan. Baiñe guk geuk e gure ama zan kantaxa, hamengoxe herrikoi-herrikoi kantak, betiko-betikuk horretxek kanta.
- Umetako... berezi kanta euskaldunik guk ez genkixen, ze erderaz e... ikasi genduzen jokuk. Baiñe herrikoi kantak, entzunde etxitan ta...
- Ze kanta zien edo?
- Bai, "Hiru aeroplano pasa ta bat itsasora jausi" ta horretxek.
- On kantetako moduen bai?
- E?
- Kantetako moduen oin bai? Ze horrek be ia galdu eitten die, ez?
- On, on? Ba bai! On nik kanta? Jesus!! Bueno...

Hiru aeroplano pasau-ta,
bat itsosara jausi.
hiru aeroplano pasau-ta,
bat itsosora jausi.
ekarri
Seberianok ekarri
Seberianok ekarri
Seberianok
barran fonduan utzi.

Bota-ta
ezin atrapa bota-ta
ezin atrapa bota-ta
ezin atrapa,
txikotetik eskapa.

Hori egixe da, hori egixe da,
neuk ikusitelako,
hori egixe da,
hori egixe da,
neuk ikusi dolako.

Egongo diz gehixaua be bai, holakoxik, da "Ixil-Ixililik dago" hoixe [...]
horretxek oso polittak.

9. Asko gustatu izan zaion bertso bat

- **Erref:** OND-047/012
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:16:25. **Bukatu:** 00:17:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak

Laburpena:

Nagusiagotan asko gustatu izan zaion bertso bat (Bilintxena) abesten du.

10. Umeentzako katak eta ipuinak moldatu egiten ditu

- **Erref:** OND-047/014
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:18:08. **Bukatu:** 00:19:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Kantei buruzko azalpenak

Laburpena:

Umeei lo eragiteko kanta asko saskarrak direla dio, eta berak bere erara moldatzen ei ditu. Baita ipuinak ere.

11. "Garbantzito"ren ipuina

- **Erref:** OND-047/016
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:23:04. **Bukatu:** 00:24:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Bilobari "Garbantzito"ren ipuina kontatzen ei dio, baina ez ei zaio gustatzen. Nola kontatzen dion ipuina.

Transkripzioa

- Ipuiñek kontetan be famau ixengo zara orduen.
- Bai... asmatakuk gexenak, ze oinguk ez dittuaz topaten e...
- Edo lehen kontetan zienak eta... lehen asko entzungo zenduzan zuk be, etxien ba, antziñeko ipuiñek-eta umieri-ta konteta jakezenak.
- Upiñak e... ezaunak, betiko ezaunak: Pulgarzito, ta halaku ta... Aiii ba gure neska txikixai gustau ez, Garbantzito. Egun baten, bizi zan Garbantzito. Ta zan txiki-txikixe, garbantzun tamaiñoku, ta jun zan... Hamentxe bixi zan, bera be hazi arte gehixaua hamentxe euan ta... Ta jun zan /juntzan/ horra zelaire, ta halako baten amak ezin topa Garbantzito. Ta "Gabantzito, nun zaz?", ta "ganarun tripan" ta "noiz urtengo dozu / urtengo zu?" eta "hiru kaka-munto einddakun" ta praus, praus, praus kakaz be..., gustau ez harei. "Ez Garbantzito ez, ganarun barrun" ta, "ez, hori feu da /feure/". Ta nik gero luzatu bir: ta urten ebanin /urtebanin/, a ze amak poza, kendu eban handik, garbittu eban dotore, ein otsazen / eintzazen/ e, koloniak eta guapun ta jantzi, ta listo. Ta holako zeeze ipini bir, bestela upin guztitik e... Garbantzito koitxaue be gusta be ez.

12. Egur pusketen formekin jolasean

- **Erref:** OND-047/017

- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:24:25. **Bukatu:** 00:26:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umeekin enbor eta egur pusketek zeren antza duten asmatzen jolasten du.

13. Eskolako kontuak buruz

- **Erref:** OND-047/019
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:28:02. **Bukatu:** 00:29:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Antxoa garaian lantegira joaten zirenean antxoei burua kentzera, eskolara ez ziren joaten. Eta gero ezin jarraitu eskolako martxa. Baina buruz ikasi bai, horretarako ez zuen inongo arazorik. Gauza asko kantuan ikasten zituzten. Bilobei ematen dizkien azalpenak.

14. Jolasetan egindakoak ere konfesatu egin behar

- **Erref:** OND-047/022
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:31:08. **Bukatu:** 00:32:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

"Asto-astoka" ibiltzen ziren, elkarri helduta, eta besteak gainera salto egiten. Gero jauna hartzera joan behar zirenean, konfesatu egin behar izaten zuten elkarri helduta ibili zirela. "Tres navíos"; "A la bandera"ka.

15. Emakume bat zirikatu zutela konfesatu zuenekoa

- **Erref:** OND-047/023
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:32:35. **Bukatu:** 00:35:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Bekatu txikiak izaten zituen beti abadeari konfesatzeko. Baina behin Basilisa izeneko emakume bati kanta bat abestu zioten eta ernegatu eragiten ibili ziren. Zalantzak izan ostean, abadeari egindakoa konfesatu zion eta honek kanta abesteko eskatu. Lotsa handia pasa ei zuen.</p>

Transkripzioa

- Ta akordaten naz e... Andra bat e... Nik ez dakit /eztai/ nundik ata gendun... Hortxe honutzaua Antsosolo etxe zati bat barrixe dan lekun, hortxe parin eguan etxe bat, lehengu, zaharra, ta haren ondun e... beste holako akopla txiki bat. Hantxe bixi zan Basilisa. Eta... ez dakit /eztai/ nundik ata gendun kantioi "Basilisa toca el bombo, instrumento singular, saca las cuentas y acompaña con la hija de tuturiplas". Ia horrek ze nahi daben esan...! Baiñe ba... Ta berak "mecauen la puta" eta jo-ta harrixak-eta botaten oskun /botatezkun/. Gu ibili giñan barre algaraka. Ailla zan hillan lehelengoko barixaku; derrigor jun bihir ixaten giñan eskolatik hillan lehelengoko baixakun, kruzatea. Ta neuk esan neban "haxe da...". Nire pekatuk ixaten zin: amai erneaziñoi emon, de todas todas, ama erneaten ipini; esne teli, gaiñeko esne guni, teli, haxe ostu. Zoratu eitten gakon ha kazulari ederto dakarrena estropeati. Haxe hartu, batzutan azukriaz eta, azukre gitxi baeuan, ba, azukre baik eta... Esne telak ostu azukriaz, bi azukriaz, bat azukre baik, hurrengun kontako dotsat /kontakotzat/ besti eta ba... Ha ein dot edo hori edo besti eta lantzoikeixa, ume koittauan lantzoikeixak hor zin ba eta... Neukan kezka bat: "Haxe andri ai... Harei andriai guk erneau handixe emon dotsau. Pekatu ete da? Ez dotsat esango". Han nebillen pentsa eta pentsa, eta "Bueno, esango dotsat andra batei burle ein dotsatela eta ya está". Pentsa-pentsa ein eta gero, estu-estu ein eta gero, juten naz eta [...] balitxake modun ez dakit zer, "Andra batei burle ein", "Andra batei burle ein? ze ein dotsazue?" ta "Ba burle...", "Ze esan dotsazue ba?", "Bueno, esan esan... Kanti de", "Kanti de? Kanta ordun" ez dostan esan ba? Eta ni hantxe konfesionai xun "Basilisa toca el bombo..." hoixe kantaten, eta entzuten neban abari barre algaraka. Baiñe ixiltzeko ez dostanetik esaten, ba... Ta halako baten, "basta, basta, basta". Nik ordun e... Jesus...! Ez dakit /eztai/ jangoiku, abari, zeñei eingo netsan ez dakit /eztai/ zer. Urteten dot, jente guzti [burletan], klaro ba! ze ze... zetan nebillen konfesionai xun e... Han "Basilisa toca el bombo"... "Basilisa, toca el bombo, instrumento va tocando"... Ze... nik ez dakit /eztaitx/ nundik ata gendun baiñe harek andrik txarto pasa eban, eta nik e... Beste lagunak ez dakit /eztai/ zer ein eben, mundo guzti barre algaraka, burletan... Mekauen diez, gehixa ez dotsat esango Basilisai ixe.

- Eskarmentau zendun behintzet, edo ze? Eskarmentetako.
- Gehixa ez nitzan... Beste zeeze eingo neban, baiña hori ez.

16. Herrian gertatutakoei kanta jartzen zitzaizkien

- **Erref:** OND-047/024
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:35:15. **Bukatu:** 00:37:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Kanta » Bestelako kanta
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Herrian gertatutako kontuen inguruan erraz sortzen ziren kankak (letrak). Gero, Musika Bandako zuzendariak, Izetak, musika jartzen zien eta herri osoan zabaltzen ziren. Letra motzak izaten ziren. Pare bat kasu aipatzen ditu.

17. Ideologia desberdineko bi kofradia

- **Erref:** OND-047/026
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:38:50. **Bukatu:** 00:39:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia

Laburpena:

Garai batean herrian bi kofradia egin zituzten, ideologia desberdinetakoak, eta saltsa handia egon ei zen. Berak ez zuen hori ezagutu, Kofradia zaharra eta berria ezagutu ditu berak.

18. Menditik su-egurra ekartzen zuten, buru gainean hartuta

- **Erref:** OND-047/027
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:39:50. **Bukatu:** 00:41:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kankak » Bestelako kankak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Kankak » Kantei buruzko azalpenak

Laburpena:

Sua egiteko egurretara joaten ziren mendira. Egurrak txikotarekin lotu eta buru gainean ekartzen ziren etxeetara. Ekonomia egoten zen etxeetan. Egurretara joatetik sortutako kanta: "Aittitte ta amume bixak egurretan...".

19. "Aittitte ta amume bixak egurretan" kanta

- **Erref:** OND-047/028
- **Iraupena:** 0:00:18. **Hasi:** 00:41:30. **Bukatu:** 00:41:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kankak » Ume kankak
- Ohiturak eta bizimodua » Kankak » Bestelako kankak

Laburpena:

<p>"Aittitte ta amume bixak egurretan" kanta abesten du.</p>

20. Kanta txikien esangura handia

- **Erref:** OND-047/029
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:41:48. **Bukatu:** 00:42:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak

Laburpena:

Kantek, txikiak izan arren, gauza asko esaten dituztela dio. "Aittitte eta amume bixak egurretan" kantak adierazten duena.

21. Ontzioletara txirbil eta egur bila

- **Erref:** OND-047/030
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:42:42. **Bukatu:** 00:43:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Ontzioletara joaten ziren txirbilaren bila, eta ahal bazen, tartean azaltzen ziren egur puska handiagoak ere hartzen zituzten.

22. Ikatza lortzeko egiten zirenak

- **Erref:** OND-047/032
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:44:00. **Bukatu:** 00:47:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Bizimodua ateratzeko egiten zirenak. Ikatza barkuetan ekartzen zuten eta portuan hustu egiten zen txalupa batera. Uretara jausten ziren zatiak salabardo antzeko batekin jasotzen omen zituen lagun batek. Kamioikada ikatza hustu ostean geratzen zen hautsa ere batu egiten zuten. Etxera eraman, urarekin bustita bolak egin eta sikatzen laga. Eta ahal bazen, trukea egin edo saldu.

23. Umeak kontserba lantegietan; inspektorea zetorrenean ihesi

- **Erref:** OND-047/033
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:47:30. **Bukatu:** 00:50:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Umeek antxoei burua kentzen lan egiten zuten lantegietan. Berez debekatuta zegoen, eta inspektorea zetorreanean, ume guztiek Zaldupetik mendi aldera ihes egiten zuten. Arratsaldean lan egitearren ordaindu egiten zieten. Lan zikina zen eta ordu asko egiten zituzten. Azkena zela esan arren, lan gehiago ekartzen zieten. Horren inguruko kopla. Batzuetan euren lana amaitutakoan, alboko lantegira, hangoei laguntzera.

24. Fabrikan irabazitakoa, arropatarako eta zorrak ordaintzeko

- **Erref:** OND-047/034
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:50:10. **Bukatu:** 00:51:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:

Lantegian irabazten zuten dirua arropa edo oinetako berrietarako izaten zen. Arropa berriak, izatekotan, urteko lau etapatan erosten ziren. Antxoak bizia ematen zion herriari. Antxoaren dirua neguan egindako zorrak ordaintzeko izaten zen. Gero, atunetatik ateratako partila; harekin beste zor batzuk ordaindu. Eta irailean berriz inork ez zuen dirurik izaten.

25. Lantegian lan egin eta gaixoak edo umeak zaindu aldi berean

- **Erref:** OND-047/035
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:51:58. **Bukatu:** 00:53:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Kontserba lantegietan lanean zeuden bitartean gaixoak edo umeak zaindu beharra ere izaten zuten. Lantegitik irten, gaixoaz edo umeaz arduratu eta berriz lanera.

26. Lantegian ez ordutegi, ez egutegi eta ez Gizarte Segurantzza

- **Erref:** OND-047/036
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:53:05. **Bukatu:** 00:54:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Lantegian ez zuten ordutegi edo egutegi finkorik. Gizona arrastetik zetorrenean, esaterako, jai hartzen zuten. Gizarte Segurantzarik ere ez zuten, ezta bazarik ere. Berez bi urte lan egin behar ei ziren erretiroa lortzeko, baina bere garaian ez zegoen ezer. Batzuk langile finkoak ziren, eta haiek antolaketa hobea zuten.

27. Herriko ugazabandreak ere lantegian lanean; arratsaldean arrosarioa

- **Erref:** OND-047/037
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:54:30. **Bukatu:** 00:55:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Lantegietako nagusien seme-alabak kolegioetan egoten ziren. Asko italiarrak ziren. Herrikoak ziren ugazabandreek lantegian lan egiten zuten, eta arratsaldean arrosarioa errezatzen zuten.

28. Mutilak hamalau urte betetakoan, itsasora

- **Erref:** OND-047/038
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:55:48. **Bukatu:** 00:57:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoarekiko jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza

Laburpena:

Mutilek ere lan egiten zuten antxoei burua kentzen, 14 urte bete arte. 14 urterekin itsasoan hasten ziren. Bere senarra bederatzi urterekin aitarekin joaten zen itsasora motor txikian. Nolako arropak erabiltzen zituzten. Urik ez sartzeko olioia ematen zitzaien arropoi.

29. Eskolara ezin joan, bizimodua atera behar zelako

- **Erref:** OND-047/039
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:57:45. **Bukatu:** 00:59:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Eskolara joaterik ez zuten izaten, nonbaitetik dirua atera behar zen eta. Gainera, eskolara joaten ziren apurretan, galduta ibiltzen ziren. Buruz ikasi beharrekoak bakarrik jakiten zituen berak, horregatik dotrina kontuetan ongi ibiltzen zen.</p>

Transkripzioa

<p>- Eskoliai ez jakon inportantzirik emoten, eskoliai?</p>

<p>-Ez, inportantzixe... ezin za jun, ez da inportantzirik hor. Hor eguan jan ein biher zala /enbizala/. Ta gero galtzen bada, berez ez bazeunkazun gogu, galtzen bazendun, esan dotsut /esatzut/ ba, jun hara hainbeste denpora ein ta gero, eta alboku ikusten bozu eitten matematika batzuk, ta neu entzuten "bai, hau honeaz, y luego con lo que sale, con lo que sale aquí ponemos...”. Nik han ez neukan garbi ze ein; “con lo que sale"... ?De dónde me iba a salir a mi? Nik ez nekixen, ideaik be ez. Ta nire morun askok. Ta ordun, ba, holantxen, burutz ikasittakuk-eta, ba, geldittu, baiñe bestelan e… justo. Gero norberak irakurri ta pentsa "ezin leike holan ixan" ta zeoze... hori, ta ba norberak ein, irakurri ta bixkat…</p>

<p>- Baiñe dotriñik inportantzixi eukiko eban.</p>

<p>- Bai, dotriñik handixe, baiñe ni salba eitten nitxan han. Dotriñan kanti asmateko klasan “de lo lista que era". Ikasti zanelako. Hamendixeik haunaxe. Nitzako hori zan “de ole”. Han ez euan e… matematika batzuk, erosizu han ta kenduzu ta hamendik ekarrizu, ta... puf… Ez bazu zuk aurretik... Zuk imajina, juten zaz eta esaten dotsue dibisiñoi bat eitteko. Ez bozu aurretik sumar bat ein, ez bozu haure... Ez dakixu zer dan be eta ze ingo dozu /engozu/ ba? Ixebez! Eta gero zigorra, gaiñetik, “por tonta”, "por no sé qué, atzeko mahaire eta… Zeiñek nahiko eban juti ba? Ta niri gusta eitten gastan eta harei beatu eta horrei beatu eta... baiñe keba, ezin, ezin. Holantxen burutz ikasittaku-ta bai, baiñe… Numerutan-ta, ba, txarto. Kantaten ikasi dou guk eta... “poco más”. Txarto.</p>

30. Dotrinan ondo, buruz ikasi behar zelako

- **Erref:** OND-047/040
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:59:34. **Bukatu:** 01:02:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Dotrina ikastera astean bitan elizara joaten ziren. Buruz ikasi behar izaten zen, eta horretan ondo ibiltzen zen. Behin on Agustin abadeak jo egin zuen aurpegian, eta hortzekin, nahi gabe, eskua odoldu zion abadeari. Haginka egin ziola-eta estutasuna pasa zuen. Dotrina oso ondo zekien, eta kanta bat ere atera zioten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com